

BEHAR BIDASOA, 1. KOADERNOA

ETXEBIZITZA DUINA

ETA JASANGARRIA RUANDAN

KABUGA, GARATZEN ARI DEN LANDA-KOMUNITATEA

Ruanda Ekialdeko Afrikako bihotzean dagoen herrialde txiki bat da. Herrialde hauekin egiten du muga: Uganda, Tanzania, Burundi eta Kongoko Errepublikak Demokratikoa. Ruandaren azalera ez da Valentziako Erkidegoarena baino handiagoa, eta, hala ere, Afrikako herrialderik populatuenetako bat da.

“Mila muinoen herrialdea” esaten zaio, lurraldea menditsua, irregularra eta berdea delako, haranez eta magalez betea.

Ruandako bizimoduak lotura zuzena du ingurune naturalarekin, nekazaritzarekin eta familia-ustiategi txikietan oinarritutako ekonomia tradizionalarekin.

RUANDA: TRAUMATIK GIZARTEAREN BERRERAIKUNTZARA

Herrialdearen egungo egoera ulertzeko, haren historia hurbilagoratu behar da.

1994an, Ruandak genozidio ikaragarria jasan zuen, eta ehun egunetan milioi bat pertsona inguru hil zituzten. Indarkeriak komunitate osoei eragin zien, milaka familia suntsituta utzi zituen eta gizarte-egitura hautsita.

Tragedia horren ondoren, herrialdeak politika, ekonomia eta gizartea berreraikitzeko prozesu sakona hasi zuen.

Gaur egun, egonkortasunari, hezkuntzari, garapen ekonomikoari eta pobrezia-aren aurkako borrokarik dagokionez, Afrikako herrialde aurreratuenetako bat da Ruanda.

Hala ere, landa-eremuetako biztanle gehienak baliabide ekonomiko mugatuekin, azpiegitura eskasekin eta bizi-baldintza egokiak betetzen ez dituzten etxebizitzetan bizi dira oraindik.



“KABUGA” HITZAK “GANADUA GORDETZEN DEN LEKUA” ESAN NAHI DU KINYARUANDA HIZKUNTZAN.

Kabuga da errealitate horren adibiderik argienetako bat. Kigali hiriburutik 20 bat kilometrora dagoen landa-komunitate bat da. Komunitate horretan, 15.000 pertsona inguru bizi dira. Haren kokapenari esker, nahiko erraza da merkatuetara, eskolara edo lantokira joatea, baina ez daude konponduta bertako biztanleen eguneroko bizitzan eragina duten egiturazko arazoak.

Kabugako familia gehienak iraupeneko nekazaritzan aritzen dira: artoa, lekak, bananak eta babak landatzen dituzte, batez ere, beren kontsumorako. Dena dela, soberakina izaten dutenean, tokiko merkatu txikietan saltzen dituzte. Diru-sarrera baxuak eta irregularrak izaten dituzte, eta, beraz, pobrezia oso presente dago.

Edateko ura, elektrizitatea, garraioa eta osasun-zerbitzuak eskuratzeko aukera mugatua da, eta, kasu askotan, kanpoko laguntzen edo ekimen komunitarioen mende egoten da.

Euskadiko “Behar Bidasoa” eta Ruandako “Pôle de Development de Kabuga” erakundeak lanean aritu dira azken urteotan edateko ura herritarrengana gerturatzeko. Hornidura-sistemaren oinarria da eremu garaietan dauden iturburu naturaletatik ura hartzea, eta handik grabitatearen bidez komunitateetara ino eramatea. Horretarako, hodian, deposituen eta banaketa-puntuaren sarea eraiki dute, iturri publikoen bidez ura hurbiltzeko. Horrez gainera, euri-urak biltzeko sistemak eta luraren higadura kontrolatzeko egiturak instalatu dira.

Testuinguru horretan, familia asko lurrez eta adarrez eraikitako etxeetan bizi dira, eta plastiko edo txapa hauskorrez egoten dira estalita.

Egitura horiek erraz hondatzen dira hezetasunarekin, euriarekin eta denboraren joanarekin.

Ruandako Gobernuak adierazi du txaboletan bizi diren



“Kabugako Garapen Gunea” GKEaren instalazioak

pertsonen biziak arriskuan daudela; izan ere, etxeen hauskortasunaren eraginez, luiziak, istripuak eta osasun-arazo larriak sor daitezke.

ETXEBIZITZA DUINA: PREMIA LARRIA

Etxebizitza segurua, egonkorra eta erresistentea izatea da pobreziatik ateratzeko faktore erabakigarrietako bat. Etxebizitza egoki batek, familia bat fisikoki babesteaz gain, osasuna ere hobetzen du, autoestimua sendotzen du, hezkuntzarako sarbidea errazten du eta etorkizuna planifikatzeko aukera ematen die.

Kabugan etxebizitza duinaren beharra izugarria da. Buztinezko edo lastozko etxe tradizionalak ez dituzte gutxienezko osasun-baldintzak betetzen: ura iragazten da euria egiten duenean, intsektuak erakartzen dituzte, ez dute aireztapen egokirik eta berehala hondatzen dira. Familia askok hotza pasatzen dute eurite-garaian, arnasketa-gaixotasunak izaten dituzte edo etxeak eroriko diren beldur dira.



Proiektuari esker eraikitako etxea

ETXEBIZITZAK ERAIKITZEKO PROIEKTUAREN EGINKIZUN ERALDATZAILEA

2006az geroztik, Behar Bidasoak tokiko komunitatearekin lan egiten du errealitate hori aldatzeko, **etxebizitzak eraikitze**ko proiektuaren bidez. Etxeak adobezko adreiluz eta morteroz eraikitzen dira, egurrezko egituraren gainean metalezko xafiak erabilia estaltzen dira sabaiak, barne-aireztapena errazteko leihoak jartzen dira, itxitura segurua duten ate erresistenteak instalatzen dira eta klimara zein inguruko lurrera egokitutako diseinua ezartzen da.

Programak eragin fisikoa ez ezik, soziala ere badu: etxebizitza berri bakoitzak familia oso baten bizitza aldatzen du, eta lekuko baldintzak ere hobetzen ditu. 16 urte hauetan 300 etxetxo baino gehiago eraiki dira, eta etxe horiek aldatuz eta hobetuz joan dira denboran zehar.

Testuinguru horretan ulertzen da etxebizitza-proiektuaren garrantzia. Etxeak ez dira soilik gune fisiko bat: egonkortasunerako, osasunerako eta garapenerako aukera bat dira. Haurrek lehor egin dezakete lo, lasai ikasi eta bestelako etorkizun bat eraiki. Emakumeek eta gizonek autoestimua, segurtasuna eta jarduera ekonomiko txikiak egiteko gaitasuna irabazten dute.

Eraikitako etxe bakoitzak kohesio komunitarioa ere indartzen du, erakusten baitu aldaketa posible dela eta lankidetzak bizitza hobetu dezakeela.

Etxebizitzak, batez ere, oso egoera ahulean dauden eta seme-alabak hazten eta adinekoak zaintzen dituzten emakumeentzat dira.

Kasu askotan, emakume horiek alargunak izaten dira edo ez dituzte bikotekideak gertu izaten (esaterako, espetxean egon daitezke), baliabide ekonomiko egonkorrik gabe, eta norberaren lurra eskuratzeko aukerarik gabe. Muturreko pobrezia-egoeran bizi dira, segurtasunik gabeko txabola prekarioetan.

Etxetxoek bizitzeko leku seguru eta duina ematen diete, eguraldi txarretik babestuz eta osasun-baldintzak hobetuz. Horrez gainera, etxeari egonkortasuna ematen diote, haurren ongizateari laguntzen diote, eta familiei beren garapen pertsonalean eta ekonomikoan zentratzeko aukera ematen diete.

EGURRAREKIN KOZINATZEA: TRADIZIOA, BEHARRA ETA ONDORIOAK

Ruandako landa-komunitateetan, Kabuga barne, egurrarekin prestatu ohi da janaria tradizioz; beraz, kea, egur errearen usaina eta beroa familien eguneroko bizitzaren parte dira.

Kearen usaina arropan, pertsonen gorputzetan eta eraikinetako hormetan sartzen da, eta herriko giroaren berezko osagai bihurtu da. Hala ere, jardun hori bestelako energia-iturriak ez izatearen ondorio ere bada.



Nerabea nekazaritza-lanetan laguntzen

Egurrarekin egindako sua janaria prestatzeko eta ura berotzeko erabiltzen da, baina arrisku handiak ditu:

- Osasunari kalte egiten dion kea sortzen du,
- Pertsonak, batez ere emakumeak eta neskatilak, zura biltzen orduak ematera behartzen ditu,
- Suteak eragin ditzake,
- Deforestazioa eta ingurumena hondatzea ekartzen du.

ori dela eta, egungo proiektuko sukaldeak eta komunak etxe nagusitik kanpo eraikitzen dira. Kabugako etxe askotan, sukaldea kanpoaldeko gune txiki bat da, txapazko edo egurrezko teilatu xume batez estalia. Han prestatzen da eguneroko janaria, egurra eta tresna sinpleak erabiliz. Erabaki hori segurtasunarekin, osasunarekin eta etxea bera zaintzearekin lotutako arrazoiengatik hartu da, keak eraikuntza kaltetuko lukeelako.

Egurra energia-baliabide gisa erabiltzea lan-karga fisiko etengabea da familiarentzat, batez ere



Etxe berri baten sukaldearen irudia

BERRIKUNTZARA IREKITAKO ETORKIZUNA

Kabugako proiektuak aurrera jarraitzen du, eta hurrengo urratsa da energia garbiak txertatu ahal izatea, egurrarekiko mendekotasuna murrizteko eta bizi-kalitatea hobetzeko.

Egungo etxebizitzak tokiko baldintzak errespetatuz diseinatu dira: material irisgarriak, egiturazko segurtasuna eta kanpoko sukaldeak. Hala ere, proiektuak hobetzen eta berrikuntzak egiten jarraitzen du, energia garbiarekin eta jasangarriarekin funtzionatuko duen etxebizitza segurua eta berritzailea lortzeko.

Behar Bidasoaren historia, 1976an, Jose Ramon Amunariz misiolari irundarra Ruandara iritsi zen. Handik, Kabugako herritarren bizi-baldintzak hobetzen laguntzeko eskatu zien Irungo lagunei.

Ruanda izan zen Bidasoa eskualdeko jende askoren laguntzaren eta lankidetzaren desinteresatuaren lehen jomuga.

Elkartasun horri esker, hainbat arlotako proiektuak garatu ahalizan ziren: hezkuntza, osasuna, etxebizitza, sozializazioa, garapen integrala, emakumearen ahalgintzea...

Eguzki-energia dagoeneko erabiltzen da Afrikako zenbait landa-eremutan, argia izateko edo telefonoak kargatzeko. Imajinatu zer ekarriko lukeen Kabugan energia hori etxeetan erabili ahal izateak eta egurraren menpe ez egoteak.

- Denbora libre gehiago emakumeentzat,
- Ke gutxiago,
- Ingurumena hobetzea,
- Segurtasun handiagoa,
- Osasun hobea,
- Ahalegin fisiko gutxiago.

Horizonte horrek bide zoragarria irekitzen die hezkuntza-erronka horretan parte hartuko duten ikasleei, sormena, teknologia, ezagutza eta ilusioa erabiliz behar erreal eta zehatz bat eraldatzeko.

Lankidetzaren Afrikako eta Hego Amerikako beste herrialde batzuetara zabaltzen zen, eta Behar Bidasoak proiektuak ditu gaur egun Paraguain eta Kolonbian.

Behar Bidasoa GGKE independente eta akonfesionala da. 1998ko ekainaren 2an onura publikoko erakunde izendatu zuten, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Boluntariotza Saria jaso zuen 2009an.



Nekazaritza-lanak egiten

“Transformación ecosocial en Gipuzkoa y en el Sur desde los centros de FP y Universidad” hezkuntza-proiektuko materiala (2025 ERAL 000014-1). Zabalketa eta Enraiza Derechos elkarrekin koordinatzen dute proiektua, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ere parte hartu du finantzazioan, “Pobrezia Aurrakako Borrokan Ingurumen Iraunkortasunaren aldeko Nazioarteko Sarea”ren elkarlanaren esparruan.

Egilea: Behar Bidasoa eta Zabalketa Elkartea

Argazkiak: Behar Bidasoa

Itzulpena: Bakun

Diseinua eta maketazioa: ad hoc Komunikazioa eta Marketina
L.G. D 779-2026

Gaztelaniako eta euskarazko bertsioak eskuragarri daude Behar Bidasoaren webgunean: www.beharbidaso.org; eta Pobrezia Aurrakako Iraunkortasunaren Aldeko Sarearen webgunean: <https://redsostenibilidadambiental.org/>

